



6/2020 JARRAIBIDEA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO FUNTSEZKO ZERBITZUETAN EMAN BEHARREKO ESALDURA-ARAUBIDEA EZARTZEN DUENA. ALDI BEREAN, ZUZENDARI HONEK BERAK EMAN ZUEN 3/2020 JARRAIBIDEA ALDATZEN DU.

Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko martxoaren 15eko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako funtsezko zerbitzuak ezarri ziren. Martxoaren 24an, Lan eta Justiziako sailburuak beste agindu bat eman zuen, eta zenbait alderdi aldatu zituen.

Era berean, Justizia Administrazioako zuzendariaren 2020ko martxoaren 26ko eta 27ko ebazpenen bidez, aipatutako Aginduak aplikatuz, zenbait jurisdikzio eta barruti judizialean funtsezko zerbitzuei erantzuteko ezarritako gutxieneko plantilla aldatu zen.

Justiziako ministroaren martxoaren 30eko Ebazpenaren bidez, Justizia Administrazioaren funtsezko zerbitzuen estaldura egokitzen da 2020ko martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretura. Ebazpen horren arabera, Justiziako zerbitzu publikoak eskatzen badu ere bermatzea herritarrei zerbitzu jakin batzuk nahitaez eman behar zaizkiela, egoera berezi honetan, presentzia fisiko hori gutxienekora murriztu behar da, zerbitzu horiek osasun arloko arduradunek emandako gomendioekin bat etor daitezen. Beraz, administrazioko funtsezko zerbitzuak egokitu behar dira. Horretarako, Justizia Administrazioko Zuzendaritza honek 3/2020 Jarrabidea eman zuen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako funtsezko zerbitzuetan eman beharreko estaldura-araubidea ezarri zuen. Hala ere, aurrez aurre egin beharreko zerbitzuen prestazioan disfuntzionalitate batzuk antzeman dira, eta, beraz, egokitzen da jarraibide hori aldatzea.



Hori dela eta, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Eranskinean jasotako funtsezko zerbitzuak aurrez aurre eman beharko dira, Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko martxoaren 15eko Aginduan (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko funtsezko zerbitzuei buruzko martxoaren 24ko Aginduak aldatua) jasotako langile-zuzkidurak oinarritzat hartuta, eta Justizia Administrazioiko zuzendariaren 2020ko martxoaren 26ko eta 27ko ebazpenak kontuan hartuta.

Bigarrena.- Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko martxoaren 15eko Aginduan ezarritako gainerako funtsezko zerbitzuak eman behar dituzten langileek ez dute egoitza judizialera joan beharko; hala ere, beren lanaldian zehar aurkitzeko moduan egon beharko dute eta epaitegira ahalik eta azkarren joateko prest egongo dira, halaxe egiteko eskatzen bazaie urrutitik eman ezin den edozein zerbitzu emateko edo gerta litekeen edozein gorabehera argitzeko.

Hirugarrena.- Oinarritzako zerbitzu presentzialak emateko, Justizia Administrazioaren letraduek edo arduradunek, bulego fiskalaren kasuan, inolako baimenik edo lizentziarik ez duten bulego judizial edo fiskaletako langile guztiak izan beharko dituzte kontuan.

Laugarrena.- Jarraibidea hau sinatzen den unean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 2a



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LAN ETA JUSTIZIA SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTIZIA
M^a Isabel Gabriel Bellido
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA



ERANSKINA

I. GUARDIA-ZERBITZUAK

Euskal Autonomia Erkidegoko barruti judicial guztietako guardia-zerbitzu guztiak.

II. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIA

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetza Kidegoko **funtzionario 1**, atal guztietarako.

III. ÁLAVA/ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA

III.I. Vitoria-Gasteizko barruti judiciala

- **Lehen auzialdiko epaitegiak eta Merkataritza-arloko epaitegiak**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetza Kidegoko **funtzionario 1**, epaitegi guztietarako

- **Zigor-arloko epaitegiak eta Adingabeen epaitegia**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetza Kidegoko **funtzionario 1**

- **Erregistro zibila**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetza Kidegoko **2 funtzionario**



IV. BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

IV.I. Probintzia-azuzitegia

Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko edo Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionario 1, atal eta erregistro eta banaketa guztiei erantzuteko.

IV.II. Barakaldoko Barruti Judiziala

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko funtzionario 1, arlo zibilekoa, astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan, organo guztiei erantzuteko.

- **Erregistro Zibila**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko funtzionario 1.

IV.III. Bilboko Barruti Judiziala

- **Epaitegi Dekanoa**

Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko edo Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionario 1, erregistrarako eta banaketarako.

- **Lehen auzialdiko epaitegiak eta merkataritza-arloko epaitegiak**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko funtzionario 1, epaitegi guztiei arreta emateko.

- **Zigor-arloko epaitegiak eta adingabeen epaitegia**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko funtzionario 1, epaitegi guztiei arreta emateko.

- **Espetxe Zaintzako Epaitegia**

Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko edo Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionario 1, astelehen, asteazken eta ostiraletan.

- **Emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako epaitegiak**

Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko edo Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionario 1, bi epaitegiez arduratzeko.

- **Erregistro Zibil Baztertzaila**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko 3 funtzionario.



V. GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA

V.I. Probintzia-azitegia

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko funtzionario 1, erregistratzeko eta banatzeko.

V.II. Donostiako Barruti Judiziala

- **Lehen Auzialdiko Epaitegiak eta Merkataritza-arloko Epaitegiak**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko funtzionario 1, epaitegi guztiei arreta emateko.

- **Zigor-arloko Epaitegiak eta Adingabeen Epaitegia**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko funtzionario 1.

- **Zerbitzu Erkide Orokorra**

Erregistratzeko eta banatzeko Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko funtzionario 1.

- **Betearazpeneko Zerbitzu Erkidea, Zigor-atala**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko funtzionario 1, astean bi egunetan.

- **Erregistro Zibila**

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko funtzionario 1.



VI. FISKALTZA

VI.I Fiskaltza Nagusia

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko edo Laguntza Judizialeko Kidegoko funtzionario 1.

VI.II Arabako Probintzia Fiskaltza

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko edo Laguntza Judizialeko Kidegoko 2 funtzionario.

VI.III Bizkaiko Probintzia Fiskaltza

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko 3 funtzionario
Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko 3 funtzionario
Laguntza Judizialeko Kidegoko funtzionario 1

VI.IV Gipuzkoako Probintzia Fiskaltza

Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko 2 funtzionario
Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko 2 funtzionario
Laguntza Judizialeko Kidegoko 2 funtzionario